

ELKARREKIN EGIN
DEZAGUN BIDEA

Etixerik gabeko pertsonen bidea **luzea da eta oztopoz beterik dago**.

Bakardadearen eta ulertze-ezaren arrasto ugari uzten doaz, eta porrot egin duten bizitza-istorioen pisua bizkarrean, min eta etsipenez josiak. Zailtasun franko dituzte etxebizitza bat eskuratzeko, enplegu bat lortzeko edo, **besterik gabe, gizarte gisa sarritan baztertzen ditugun ikusezintasunetik ateratzeko**.

Askotarikoak dira **egoera horretara bultzatu dituzten egoerak**, eta ez ditugu pertsona hauek epaitu nahi.

GURE HELBURUA

Bidean jarri nahi dugu arreta, bizitzan zehar denok egiten dugun bide horretan, eta elkarrekin topo egiteko aukeran.

Elkarrekin suertatze hori bide horren parte da, eta prozesu horrek gerturatzeko eta elkar ezagutzeko aukera ematea gustatuko litzaiguke, pobrezia-egoeran edota etxerik gabe dauden pertsonen nor diren, zer bizi duten, zer bilatzen duten eta zer espero duten **lehen pertsonan azaltzeko** aukera izan dezaten.

Bizitza prozesu bat da, mingarria maiz, egoera eta etapa desberdinetatik igarotzea eskatzen digun bidea, eta elkarrekin **itxaropen-bidea bihurtzeko** aukera dugu.



DARAMATZAN OINETAKOAK

“Nire aita hil zenean, kale gorrian utzi ninduten. Menpekotasun arazoa nuen eta zera esan nien: ‘Klinika batean sar nazazue, giltzapean, menpekotasuna utz dezadan’. Arratsaldean maletak ate aurrean topatu nituen. 15 urte t´erdi nituen”.

“Zailtasunak bizi dituzunean, bakardadea, indarkeria... Ezin duzu komeni zaizunean pentsatu. Gutxienekeo laguntzarik gabe, kaletik ateratzea ezinezkoa da”.



ISPILUA

“Inbidia sentitzen dut jendea tabernetako terrazetan hizketan ikusten dudanean”.

“Zer gertatzen zaidan inori ez zaiola axola uste dut”.

“Nomada banintz bezala sentitzen naiz, leku batetik bestera beti, atsedunik gabe”.



NIRE BIZIPENAK

“Bizitza-esperientzia piloa daramat. Berria iristen dena ulertzeko gai naiz, eta pazientzia izan behar duela adierazteko”.

“Borrokatzeko gogoia dut, eta ez amore ematekoa”.



ZAILTASUNAK BIDEAN

“Behin edo beste, lana izan dut, baina inoiz ez dut etxebizitarik eduki. Irtenbide bat bilatu beharrean egon naiz Gizarte Zerbitzuen eskutik. Etxe bateko atarian lo egitea, arropa garbitu ezinean, eta egunero lanera joatea ez dira bateragarriak”.



ARGI-IZPI BATEN ZAIN

“Gizarteak ez gaitzestea espero dut, ez etiketatzea, eta bizitzan aukera bat ematea. 15 urte nituenetik ez dut ez haurtzaro ez nerabegarorik izan, drogaren erruz”.

“Nire egoera ulertzea espero dut, era honetan, nire aurreko bizitza atzean uzteko laguntza lortzeko, etorkizun hobeagoa izateko”.



BIDE ON!

“Pertsona arrunta sentitu nahi dut. Logela batean edo kalean urtez nekez bizi ondoren, gizartearen parte naizela sentitzea”.